

# Nafarkaria

• ostirala • 1997ko urriaren 24a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Lurraren Eguna Beran** • Igandean nekazal produktuen eskaintza zabala.

**Maitena Ezkutari** • Plazaolako bide berdearen etorkizunaz baikor.

**Gure aukerak** • Tango musika entzuteko aukera Iruñean.



• LUIS AZANZA

## La Pamplonesa

### musika berriak urratzen

La Pamplonesa Iruñeko musika bandak musika berriak urratzeari ekin dio eta Nafarroako musika sinfonikoa biltzen duen lana grabatzen hasi da.



# Bera • Lurraren Eguna eginen da etzi

Artisauak, barazki feria, gasna lehiaketa eta sagardo dastaketa izanen dira

**Orain 11 urte hasi zenetik, gero eta indar gehiago hartu du Lurraren Eguna beratarren artean. Urriko azken igandean Euskal Herriko baserrietan eta bereziki Bortzirietakoetan egiten diren produktuak erakustea eta dastatzea da helburu nagusia.**



Artisautza erakusketa arras interesgarria izan ohi da Berako Lurraren Egunean. LEIRE ARZUAGA

**G**URE TXOKOA ELKARTEAK antolatzen duen besta hain handia bihurtu da, hainbat talderen laguntza behar duela besta prestatzeko. Gure Txokoa elkar-tearekin batera, igandean lanean ariko dira ikastetxe guztietako guraso elkarteak, Erausian Bortzirietako gazteen euskara taldea eta Bortzirietako euskaltegia.

Ekitaldiak goizeko 10:30etan hasiko dira. Lizuniagako Igoera lasterketa korrituko da eta tenore horretatik aitzinera ibiliko dira artisauak euren postuetan, euren lanak nola egiten dituzten erakusten. Guztia Altzate karrikan izanen da. Bortzirietako baserri-tarrek ordu horretarako eramanen dituzte Altzateko frontoira euren barazkiak, jendeak ikus dezan zer egiten den eskualdeko baserrietan. Bortzirietako produktuek txoko berezia izanen du-

te aurten ere. Ezta, barazkiak, gasna... erosi ahal izanen dira.

Eguneko ekitaldirik garrantzitsuenetakoa izaten da gasna lehiaketa. Goizeko lehen ordurako eramaten dituzte artzainek gasnak. Epaimahaiak dastaketa egiten duen bitartean animazioa izaten da karrikan. Kaleak alaitzeko era guztietako musikariak izaten dira, eta aurten zabaldu egin da eskaintza hori. Bera trikitixa taldea, musika eskolako akordeoilariak, txistulariak, txalapartariak eta musika banda ariko dira goizeko 11:00etatik aitzinera. 12:30etarako aterako dira Basauriko dantzariak.

Aurten, lehen aldietan egin zen bezala, inguruko sagardogileak bildu nahi izan dira bestan. Gontidapen berezia egin zaie jendeak

sagardoa probatu ahal izan dezan. Horrez gain, Usurbilgo Udalak prestaturiko erakusketa ikusi ahal izanen da. Bertan sagardoa nola egiten den ikusi eta orotariko informazioa jaso ahal izanen da.

Bazkaltzera bilduko dira artisauak eta baserriarrak eguerdiko 2:00etan, eta tenore horretan hasi eta 3:30ak arte itxiak egonen dira postuak. Ordu horretatik aitzinera hasiko da berriz besta, eta eguerdian bezala, arratsaldean ere jende anitz bildu ohi da Alzaten. Taloak, sagardoa eta gaztaina erreka izanen dira gauzarik deigarrienak.

Animazioa berriz ere izanen da kalez kale. Zizkuitz txaranga eta txalapartariak ariko dira arratsaldean. 17:00etan gasna lehiaketako sari banaketa eginen da,

eta ondotik enkantea eginen da saria jaso duten gasnekin. Enkantea gora-beheratsua izan ohi da, baina iaz kopuru politak eskuratu ziren.

Enkantea bukatu ahala, Kristina eta Amaia taldearekin dantzaldia izanen da Alzateko plazan. Arratsaldeko 7:00etan, baina Kultur Etxean, Kubako Entrevoces abesbatza arituko da. Abesbatza honek Tolosako abesbatzen lehiaketan parte hartu behar du, eta Beran izanen dira Euskal Herrira egindako bidaia aprobetxatuz.

Beratik ez ezik, Bortzirietan, Baztan, Malderreka eta Gipuzkoa aldetik etorri ohi da jende anitz Lurraren Egunerara.

→ Jon Abril

## Lekunberri

### Gau-pasa mundiala izango da bihar

'MAILLOPE' ALDIZKARIAK BERE 50. alea ospatzeko antolatutako azken ekitaldia izango da larunbatean Lekunberri burutuko den gau-pasa. Gau-pasa mundiala izango da Maillope-ko kideen hitzetan. Giroa behintzat ziurtaturik izango da; orain, ahalik eta jende gehien joatea baino ez da falta. Gainera gau luzea izango da, inongo zalantzarik gabe: bakoitzak ahal duen neurrian luzatuko bado ere, ordubete gehiago izango da parrandarako, ordularia ordubetez atzeratu beharko baita.

Bihar, gaueko 23:30etan, Leitzako Bepiztu taldearen doinuak izango dira Lekunberriko pilotalekuan entzungo diren lehenak. Gero, etxe-koen txanda izango da, Lekunberri, Betelu eta Errazkingo kideez osaturiko Berri Txarrak taldeak bere diskoaren aurkezpena egingo baitu. Historia laburra izan arren, arrakasta ugari eskuratu du Berri Txarrak-ek. Esaterako, iaz Euskadi Gaztearen Maketa Lehiaketan entzuleen saria eskuratu zuten. Lehen diskoak duten honetan, doinu ugari eta desberdinak nahasi dituzte (rap-a, kasu), baina benetan nagusitzen dena Ingalaterra aldeko metal hotsa da.

Eta azkenik, postre gozozkoa: Alaitz eta Maider izango dira *Ametz bat* eta *Txanpon baten truke* bezalako abestiak zuzenean eskainiz. Azken hilabete hauetako fenomeno musikala ere Lekunberri izango da. Eta guztia, 600 pezetaren truke.

Beste ekitaldirik ere antolatu du Maillope-k zazpigarren urte 8. betetzean.

→ Urko Aristi

## metropoli forala

FELIPE RIUS



## Diseinuak errealismo zikina hil du

**D**iseinuak errealismo zikinak behar dituen kokapenak eta dekoratuak desagertarazi nahi ditu. Gero eta toki desolatu gutxiago geratzen ari zaizkigu, orden arkitektoniko berriak garbitasuna ezarri du eta lehengo burdin herdoil-duen lekuan titanioa eta grafitirik gabeko hari argitsuak azaldu dira. Gure hiriek kirofano bat dirudite azken aldi honetan, baina geometria ederretako asepsia eta esterilizazioa ez dira oraindik gure arimetara iritsi, nahiz eta batzuek gizakiaren gogoa eta ingurua bat datozela uste; hala balitz, titaniozko bihotzak eta askoz ere forma aerodinamikoagoak izanen genituzke honez gero. Ez da horrela gertatzen, ordea, eta metropoli guztietako kaleetatik kendu duten lokatza izpirituetan pilatu ote den galdetzen diogu geure buruari. Azkenean, telebistari

begiratzean ohartu egiten gara zaborra, energia bezalaxe, ez dela sortzen eta ez dela deuseztatzen ere, aldatu, bilakatu egiten da, besterik ez. Duela gutxira arte karrikan topa genezakeen ustelkeria hodi katodikotan sartu dute gu museo erraldoi bihurtu den mundu honetan barrena lasai ederrean ibil gaitetzen, pasiorik gabe, sumindurik gabe, Giorgio de Chiricoren paisaje metafisikoetan sartuta bageunde bezala. Arte lanez inguratutako egonen gara laster. Dagoeneko koadroak, estatuak, eraikinak eta bideo-pantailak nonahi ikusten hasi gara, sormen artistikoaren gailurrera iristen ari omen gara, eta hala ere hotza somatzen dugu, emozioak izozturik daudela ematen du eta inguruan ez dago batere egurrik sua piztu eta berotzeko, abandonaturiko lantegi zaharretan egin ohi genuen bezala,

hiriak instalazio birtualak bihurtu aurretik, sufrimendua, miseria, alaitasuna, gabeziak, itsuskeria, festa, heriotza, zaratak eta degradazioa algodoi zuriz estaltzen ez ziren garaian. Beharbada orduan hiriak ez ziren hain garbiak, hain dotoreak, hain ederrak, baina askok beren sustraiak aurki zitzaireten bertan garapenaren hondarren artean; orain, berriz, diseinuaren marrazkien eta objektuen azpian gero eta zailago zaie haurrei, ordenadorearekin eta telebistarekin aspertzen direnean, lorezainek eta urbanistek planifikatu gabeko zelai batean jostatzea. Gurasoek hiri berriaz hitz egiten dietenean, harro egon beharko luketela esaten dietenean, burua inakurtzen dute umeek eta hiri barneko toki basatietan ibili ahal izan ziren gurasoenganako inbidia izkutatzen saiatzen dira.

Biana

•  
‘Johanes Bargotako aztiaren historia’ bideoaren estreinaldia

HERRIKO ERENTZUN IKASTOLAK ekoiztutako *Johanes Bargotako aztiaren historia* laburmetraia estreinatuko da gaur, 19:30etan, Kultur Etxean. Ikastolak egindako bigarren bideoa da eta gidoia Felix Cariñazos historiagile vianarrak idatzi du. Bideoak 20 minutuko iraupena du eta Johanes Bargotako aztiaren hainbat gora-behera kontatzen dira: jaiotza, bitxikeriak, Inkisizioarekin izandako arazoak, Endregoto sorginarekin izandako harremanak eta Agillarreko kondaira berpizteko saiakera, besteak beste.

Bideoa ekainean hasi ziren grabatzen, eta irailaren bukaeran amaitu zuten muntaketa. Laburmetraian ikastolako ikasle gehienek parte hartu dute, eta errealizazio eta ekoizpena irakasleek egin dute.

Ikastolak ekoiztutako aurreneko lana *San Felices eta Antso VII Indartsua* bideoa izan zen. Han Vianako herriaren sorrera kontatu zen eta Gasteizko Indar taldeak antolatzen duen Gazte Bideoaldiaren filme onenaren saria jaso zuen.

Lizarra

•  
Beruneko soldaduen guda

BERUNEZKO SOLDADU TTPII ETA XUMEAK IKUSI ahal izanen dira Lizarrako kiroldegian bihar eta etzi zabalduko den erakusketan. Ume koxkorren ametsetako panpinak



• Altsasu •

Zubia autobiairen gainetik

Autobiairen gaineko zubia jarri dute oinezkoendako Altsasun, herritik Geltoki edo Carbonilla auzora oinez joateko. Besteak beste, Ibarrea industrialdean lan egiten duten altsasuarrendako. N-1 errepideko obrek irauten duten bitartean hori izanen da oinezkoendako pasabide nagusia. Oinezkoen zubia jartzea nahitaezkoa zen, oraindik ere zutik dagoen zubi nagusia datozen egunetan botako baitute Altsasuko zeharbideko bikoizketarako obrak egin ahal izateko. Zubia argiztatu gabe dago oraindik, baina Udaleko teknikariek ahalik eta lasterren arazoa konponduta egonen dela baieztatu dute. Bestalde, Altsasuko Udala Nafarroako Gobernuarekin negoziazioetan ari da zubi mugikorra jarri beharrean finko bat paratzeko.

ikusteaz gain, beraien artean egiten duten gudari so egotea ere posible izanen da. Izan ere, beruneko armaden arteko I. Nazioarteko Lehiaketa jokatu baita Euskal Herria, Katalunia, Aragoi eta Frantziako zaleen artean. Lehiaketan Antso Azkarraren guda antzetzuko da eta orotara 40 partehartzaile izanen dira. Antzetzpenak goizez eta arratsaldean egiten dira, goizeko 10:00etatik 13:30ak arte eta 16:00etatik 19:00ak arte. Ikuskizuna Nafarroako Simulazio Historikoen Klubak antolatuta du eta Lizarrako Udalaren laguntza jaso du.

Gaurtik hasita eta azaroaren 12ra arte *Gure ugaztunen oinatz* izeneko erakusketak ikus daitezke Fray Diego Kultur Etxean. Bertan, Euskal Herrian zein Espainian bizi diren ugaztunen oin-arrastoak ikus daitezke, bertzeak bertze: zaldi, asto,

basahuntz, behi, ardi, txerri, orein, hartz, azeri, otso eta saguena. Orotara 47 oinatz aurki daitezke.

Erakusketa Lizarrako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Gaztediaren Batzordeak antolatu dute, eta ugaztunen izenaren, espeziaren eta familiaren arabera sailkatu dituzte. Oinatz bakoitza informazio fitxa batek lagundu du eta ugaztunen ezaugarri nagusiak, espeziaren habitata, bizi-iraupena eta gorputzadarren garapena zehazten dira, besteak beste. Erakusketak dinosaurio oinatz baten erreproduktzioa ere jaso du. Kiko Eskobar Lizarrako Udaletxeko Euskara Zerbitzuko arduradunaren ustez, «ingurunearekin dugun harremana beste era batera ulertzeko modua eskaintzen du erakusketak».

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak

Eduarne Elizondo

Etxamendi eta Larralderen kantaldia

Herria astekariak *Herria eta kultura* gehigarria dakar bere baitan urriaren 16ko zenbakian. Gehigarriak Eñaut Etxamendi eta Eñaut Larralde kantariei eskaini die bere hirugarren zenbakia. Igandean, hain zuzen, Aldudeko elizan, kantaldia egiten dute arratsaldeko 16:00etan. «Bi urtetarik kantu egile baten ohoratzea, kantaldi berezi bat apailatuz, horra Mikel Erramuzpe euskalzaileak ukan zuen ideia ederra eta Aldudarrak batasunak obratzen duena, Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin. Denak oraino oroit gara, duela bi urte Aldudeko eliza mukurru bete zela, *Manex Pagola kantatuz*

saioarentzat eta atseginekin entzun ginituela Baigorri baleako kantariak eman ziztuzten gure poeta-misikariaren kantu hun-kigarri edota alegerak. Aurten, Eñaut Etxamendi hautatua izan da, guttienez hiruetan-hogoi kantu egin baititu eta Euskal Herriko plaza guzietan ibili baita Eñaut Larralderekin. Alduderen, biak batean goraiatuak izanen dira. Etxamendik eta Larraldek lau diska atera dituzte, *Elosegiri*, *Tiki-ttaka*, *Zutik* eta *Oxagabia*. Bestalde, bi kaseta egin dituzte eta beste bi diska handi, horietarik batean Etxamendiren alaba Maik ere kantatzen zuela. Hogoita hamar bat urtez, hortzez eta

haginez jokatuz, eta beti lilura sortuz, hainbeste eta hainbeste kantaldi egin dituzte gure euskal artistek».

Bi abeslari egindako elkarrizketa bana jasotzen du gehigarriak. «Barnetik, bihotzetik, tripatik, zure durduretarik bada nota bat alegantzia eta nigar iturri, hura harapatu arte ez dut bakerik», dio Etxamendik. Larraldek, berriz, zera azaltzen du: «Etxamendiren kantuek badute berezitasun bat: biziki nekeak dira bakarrik kantatzeko, kasik denek bigarren botz bat behar dute. Orduan Eñautek bere kantuak emaitzekotan beste bat behar zen, eta ni hor nintzen».

Donesaturdiko



oilarra lumatzen

Juan Kruz Lakasta

José Antonio

José Antonio Iriarte deitzen da, eta denek *Mina* esaten diote. Hogeita zortzi urte ditu, eta Arrosadiakoa da. Bere esanetan, Osasunzalea dela da bere ezaugarriarik garrantzitsua. «Osasunaren elastikoa gorria denez, odola gorria dut, baina elastikoa berdea balitz, odola berdea edukiko nuke», adierazten ohi du.

Txikitatik izan da Osasunako jarraitzaile sutsua. José Vila ikastetxe publikoan ikasi zuen, eta hamaika *borota* egin zituen Sadarrera joateko, gorritxoaren entrenamenduak ikusteko. Gelako haurren artean bera izan zen Osasunako uniformeak lortzen lehena. Halaber, larruzko Mikasa baloia zuen, Osasunaren baloi ofiziala. Gelakoek, hori guztia dela kausa, inbidia zioten. Hori dela-eta, krudelak ziren berarekin: *Mina* deitzen zioten. Mina garai hartako Osasunako atzelari bat zen. Txikia zen, eta baloia hanketan zuela ez zen, inondik inora ere, munduko jokalaririk trebeena. José Antonio txikia zen, eta potoloa, eta baloia hanketan zuela ez zen, inondik inora ere, munduko jokalaririk trebeena.



Zortzigarren mailan zegoela, José Antonio, Mina, auzoko Sporting 79 futbol taldeko frogetara aurkeztu zen. Ez zuten hartu. Orduan, Osasunako jokalaria ezin bazuen izan, Osasunako jarraitzaile sutsua izanen zela erabaki zuen. Igandean horretan gurasoek paga eman ziotenean, ez zuen goxokietan gastatu. Guztia gorde zuen, eta arratsaldean, Sadarren, infantil sarrera erosi zuen, Osasunaren eta Las Palmasen arteko norgehiagoka ikusteko. Orduan entzun zuen lehendabizikoz Osasunako ereserkia: «De tu blusa y tu bandera...». Biziki hunkitu.

Joan den astelehenean, Turrillas Maisua hil zela jakin zenean, ereserkia entzun zuen egongelako musika tresnan. Berriz hunkitu zen. Malko bat ixuri zuen, eta zutabe honetan kontatzen den guztia, eta gehiago, gogoratu zuen: Pepe Alzate, Etxeberria Irigibel eta Martin, Zabalza, Glasgow Rangers, Robinson, jaitsiera...

# Doinu berriak La Pamplonesan

Iruñeko banda Nafarroako musika sinfonikoa biltzen duen konpaktua grabatzen hasi da

La Pamplonesa musika banda hasia da musika sinfonikoa biltzen duen lana grabatzen. Jadanik bi pieza jaso dituzte eta heldu den azaroaren 15ean beste biak grabatuko dituzte. Estrenaldia, seguruenik, ilbeltzean egingen da hiriburuko Gaiarre antzokian.



Vicente Egea Pamplonesako zuzendaria.

**D**ENBORALDI BERRIAREN ESKUTIK HAIZE ETA DOINU berriak datoz La Pamplonesara. 1994an 75 urte bete zituen taldea gogotsu dator eta Nafarroako musika sinfonikoa biltzen duen lana du denboraldiko proiektu esanguratsuenetakoa bat. Taldea joan den larunbatean hasi zen grabaketa lanetan. Vicente Egea zuzendariaren gidaritzapean. Konpaktua herrialdeko lau musikagileren lanek osatzen dute eta Iruñeko Udalararen eta RNEren laguntza du. Dena den, ideia Vicente Egearena izan da. 1996ko martxoan La Pamplonesaren zuzendaritza hartu zuenez geroztik gauzak asko aldatu dira taldean eta helburuak ere bestelakoak dira. Konpaktu berriaren helburua «bandentzako pieza handinahiak idatz daitezkeela frogatzea da», dio zuzendariak. «Musika bandei buruz dagoen ikuspegia ez da egokia, jendeak uste du kaletik kalejirak jotzen dituen taldea dela eta egun La Pamplonesa egiten ari denak ez du zerikusirik horrekin. Egun bandentzako idazten ari diren musikak oso zailak eta onak dira estetikoki zegin egitura alde-rik», gaineratu du.

Dagoeneko konpaktua osatuko duten lau obretatik bi grabatu zituzten joan den larunbatean

**Vicente Egea**  
«Nolabait, literatura sortzen eta konposizioak aberasten ari gara. Gainera, batzuk oso ikusgarriak eta berritzaileak dira»

egin zuten entseguan. Bernardo Adan Ferreroren *Nafarroa* poema sinfonikoa eta Tomas Asiainen *Hiru dantzetako sulta*, hain zuzen ere. Beste bi lanak Koldo Pastorren *Eguzki lore* eta Egeak berak idatzitako *San Fermin poema* dira. Guztia uste bezala badoa, bi piezak datorren azaroaren 15ean grabatzeko asmoa dute, eta hurrengo egunean estreinatuko dituzte kontzertu berezi batean.


### Musika denboraldi berria

Herrialdeko musika sinfonikoa grabatzeko asmoa berria den arren, La Pamplonesak baditu beste bi lan grabatuak aurretik. Taldeak Sanferminetako musika eta gaitajole eta txistulariekin bilduma bana jaso zituen. Nolanahi ere, esku artean duten proiektua «berritzailea» dela uste du Mikel Juaniz La Pamplonesako partaidea. «Errepertorioaren artxiboa zabaldu nahi dugu, zaharkitua geratu delako. Horrek jotzen ditugun ohiko piezak ez ezik, oraindik bizirik dauden beste egile askoren lanak erakusteko aukera emanen digu». Zuzendariak taldearen gidaritza hartu zuenean argi eta garbi esan zuen helburu nagusietako bat musika errepertorioa berritzea

zela. «Taldearen ahalbideak aintzat hartuz, musika sinfonikoaren bideari heldu nahi diogu denboraldi honetan, Pamplonesak duen popularitate handi hori nolabait ekiditeko. Gehienek Riarriuan jotzeagatik edo ez jotzeagatik ezagutzen dute, eta saiatu nahi nuke Pamplonesa izan dadin ezaguna ez horregatik, baizik eta egunero egiten dituen beste gauzengatik». Beraz, La Pamplonesako doinuak «sinfonikoagoak eta garaikideagoak» izanen dira denboraldian. Era berean, baztertuak dauden Nafarroako egileen kantak ezagutzeko aukera proposa litzatekeela deritzo. «Ekimenak ahalbidetu du nik lan bat idaztea eta Koldo Pastorrek beste bat egitea. Nolabait, literatura sortzen eta konposizioak aberasten ari gara. Gainera batzuk oso ikusgarriak eta berritzaileak dira. Era berean, izar zahar bat berreskuratu egin dugu. Tomas Asiainen lana kalitate handikoa da Fernando Remacharen ikaslea zuzena izan zen eta oso ongi eginga da. Harrigarria da Nafarroan oraindik inork ez interpretatu izana eta ezezaguna izatea. Horrelako ekimen gehiago balira oraindik hobe».

Iraila gogorra izan dute La Pamplonesa osatzen duten 50 musikariek, astean hirutan (astearte, asteazken eta ostegun) arratsaldeko 8:00etatik 10:00etara gogor entseatu behar izan dute eta aurrerantzean ere ez zaie lanik eta non ariturik faltako. «Eguneroko lanaz gain, gehiago pilatzen zaizu, obra berriak interpretatu behar direlako. Era berean, beti jo izan duguna hobeki egiten saiatzen naiz. Musikak plano objektiboa duen bezalaxe subjektiboa ere badu, eta errepertorio berri bat sartzeko arriskua eta lan gehiago dakar», dio Egeak. Dena den, oso pozik dago egiten duten lan eskergaren emaitza onak nabariak direlako. «Batuta dantzatzeko hasten zarenean taldeak ematen duen berehalako erantzunean nabaritzen da. Nik ez dakit nola egiten zuten lan lehenago, orain saioak gogorak eta atsedetik gabeak dira eta partaidea oso ongi erantzuten dute. Bestalde, taldean jende berria sartzeko maila igo egin du eta kalitatean antzematen zaio».

Konpaktu berriaren grabaketari taldeak dituen



La Pamplonesa astearteko entseguan. Vicente Egea falta zenez, taldeko partaidea batek zuzendu zuen banda. LUIS AZANZA

## Koldo Pastor

Musikagilea

«Zotzikoaren eta ezpata dantzaren erritmoak egokitu ditut 'Eguzki lore' egiterakoan»

**K**OLDO PASTOR MUSIKAGILEA ETA Iruñeko Orfeoiko zuzendari ohia da La Pamplonesa grabatzen ari den konpaktua jasoko dituen obretako baten egilea. Pastorrek *Eguzki lore* lana idatzi du bereziki taldearentzako. Ezpata dantza eta zortzikoaren erritmoetan oinarriturik, bandarako egokitutako doina konposatu du.

Oraindik pieza entseguetan entzun ez badu ere, La Pamplonesako kideek bere lana ongi joko dutela ez du dudarik. Heldu den azaroaren 15ean grabatuko dute eta entzulari gustatuko zaiolakoan dago.

### ■ Nola sortu zen ideia?

Vicente Egea lagun mina dut eta duela hiru hilabete eskatu zidan La Pamplonesarako zerbait egiteko. Disko oso motibazio handia da konposatzaileendako eta gauza ona. Bertzalde bandarako musika oso interesgarria da, zabaltzen joan da eta aukera asko ditu. Instrumentazio nabaria du eta aukera ona iruditu eta idatzi nuen.

### ■ Nondik ateratu duzu *Eguzki lore* pieza, bazenuen aurretik idelarik buruan?

Ez. Euskal motako musika erabiltzea zen nire asmoa. Kontuan izan nuen bandarako ez dagoela euskal musika asko eginga. Hori guztia dela eta, aukeratu nituen ezpata dantza eta zortzikoaren erritmoak, nahiz eta nik egokitu egin ditudan. Eguzki loreari

buruzko ipuin surrealista bat irudikatu nuen eta hori egiten saiatu naiz.

### ■ Euskal erritmoak dituzten pieza gutxi daudela diozu. Zergatik?

Egun hemen ez dago Mediterraneoko herrietan bezalako musika banden tradizio handirik. Lehenago baren banda mordoia, baina azken urteetan galdu egin da eta gutxi egin da banda kopurua. Musikagilearentzako oso garrantzitsua da behin zerbait eginez gero estreinatzeko aukera izatea; beraz, bandararik ez badago, pieza gutxi egingen dira. Zorionez, Iruñean badugu orain Vicente Egearen zuzendaritzapean banda ederra.

### ■ Euskal erritmoak ongi egokitzen dira musika bandetara?

Bai, oso egokiak dira. Baina normalean bandaren bat jotzen entzuten dugunean egokitzapenak entzuten ditugu, musika popularra hartu eta moldatu ondoren egindakoak. Hori dela eta, oso garrantzitsua da jatorrizko musika egitea eta kasu honetan zortziko eta ezpata dantzaren erritmoak uzartu izana.

### ■ Noizbait egin duzu lanik musika banda batentzat?

Ez. Hau da lehendabiziko aldia. Estreinatzen denean ikusiko dugu emaitza baina orainoz kontent nago. Entseguak hasi omen dituzte baina oraindik ez ditut entzun.

### ■ Nafarroako musika sinfonikoa ez-

gutzeko aukera du entzuleak lanean?

Gehiegi ez dagoen arren, aukera bat da. Nafarroan hamar bat musikagile gaude eta aukera ona da obrak estreinatzeko, bestela oso aukera gutxi dagoelako. Bide guztiak aprobetxatu behar dira. Administrazioak ez du eta aukera handirik ematen. Berarek diote gutxiengo bati zuzendutako musika laguntza zenbateraino den egokia. Errentagarritasun ekonomikoa aurkitu behar omen zaio eta gureak ez du, gutxiengoari zuzendua delako. Agintariek *erakuslehioko kultura* egiten dute.

### ■ Iruñeko Taldeko partaidea zara, zuen musikak badu lekurik Nafarroan?

Ezta pentsatu ere. Musika garaikideak oso zabalkunde txikia du, eta ez bakarrik entzulearen erruagatik baizik eta konposatzaileak ere baduelako akatsik. Normalean anitzek egiten duten musika oso bana-banako taldeentzako da eta ez da gehienegonengana heldzen. Gogoeta egin behar da bide hori egokia den ala ez ikusteko.

### ■ Zein bide litzateke egokia?


Oso nabaria da nola aldatzen ari den musika garaikidea. Gaurko musika atsegina eta hurbilagoa da eta egiteko moduak aldatzen ari dira. Adibidez pelikuletan egiten diren bandak ulergarriagoak dira. Erabiltzen dugun kodigo berezia jendeak ez badu ulertzen nola komunikatuko dugu erran nahi duguna? Horregatik kodigo ulergarriagoa erabili behar dugu. Musika garaikidea ez da erakargarria jendearentzat eta hemen, adibidez, Sarasate Orkestrak egitarauan sartzeari uko egin du. Ez bada entzuten entzulea ez da ohitzen eta ez zaio gustatzen, gupil zoroa da. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak egin duen planteamendua arras desberdina da, estreinatzen ditu obra berriak eta nabaritzen da.

### ■ Beraz, entzuleak egon badaude baina ez da produktua behar bezala bideratzen?

Hori da. Ez da bakarrik entzule kopurua, baizik eta musika eskolek, musikagileek bizi duten egoera kaskarra. Indarrak batu behar dira; jende asko dago orkestra txikitetan, herrietako koruetan, musikaren aldeko apustua egon badago baina ballabide eta laguntza gutxi.

### ■ Zer beste asmo dituzu aurrerantzean?

Proiektuz baterik dut burua. Nafarroako Gobernuak enkargatutako *Basajaunaren azken kantua* moldatzen hasiko naiz, eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta Donostiako Orfeoierekin estreinatzea gustatuko litzaidake. Orain arte kaxoian gordea zegoen eta Iruñeko Orfeoiko kargua utzi dudanez badut denbora lanari berriro begiratu emateko. Lasai egon nahi dut konposatzeko. Proposamenak izan ditut baina baztertzen saiatuko naiz.



Koldo Pastor

«Bandaren bat jotzen entzuten dugunean musika ezagunaren egokitzapenak entzuten ditugu. Hori dela eta, garrantzitsua da jatorrizko musika egitea, eta, kasu honetan, zortziko eta ezpata dantzaren erritmoak uzartu izana»

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Elizondoko Prantzisko, loragile goxoa

«Ni baiñon euskaldun obeak bazter bakoitzean iru edo lau arkituko dituzu, ni baiñon euskal-zaleagorikan ordea, iñon ez»



**G**UTXI DIRATEKE 36.EKO gerratearen aurretiko urte itxaropentsuetan anai kaputxinotarrek euskalgin-tzan aitzinaratu nahiz guziz burutu zuten lana oharkabe-an pasatu zaien euskaltzale-ak. Eta euskararen aldeko zein euskaraz eginiko lan eskergarri hura Nafarroan ere bazuten egin, Nafarroan batik bat. Paskual Bernardino Biguria Ozta ere talde horretako kidea genuen. Bejon deiola horregatik. 1871.eko maiatzaren 20an jaio zen elizondar hau apezbidari atxeki zitzaien, mende bat inguru lehentxeago beste baztandar batek, Erratzuko Buztiñagako Juan Lorenzo Irigoien Dutari apezpikuak alegia, zabaldu zuen apezgaitegian ikasiz. Apeztu eta gero, Lizasora igorri zuten erretoer, haatik, ez zuen bultza luzez iraun Ultzama-ko herrian, eta Asiskoaren itzalera bildurik, buruñurdunen jantzi nabarra aukeratu zuen bizi-lege 1901.eko maiatzaren 21ean Zangozan. Orduz geroztik Elizondoko Prantzisko anaia izanen genuen. Hondarribiko eta Donostiako lekaidetxeak izan zituen ohiko bizitoki hautak, 1932.eko uztailaren 4ra arte bederen, ezbehar zozo batek eraginda, giputz hiriburuan etxeko elizaren teilatutik beheara zendu zen arte hots.

Euskal literaturaren historiarako hainbat lan utzi zigun. Lehenbizikoa, 568 orrialdetako *Kristaua bere pont-elizan: Iruñako Lorenzo Doitsuko Arim-artzai argi Zelayeta-ko Marzelo jaunak bere eliztarrentzat egin eta Elizondoko Prantzisko Aita Kaputxinotako euskeratutako eliz-liburuba*, Tolosako Eusebio Lopezen etxean, 1911. urtean. Liburu hasieran itzultzaileak euskaldun kristauari eskeini

zion hitz bi dugu Elizondoko-ak berak sortutako pasarte bakarra: «Eskutan dezun eliz-liburu eder au euskeratuko ote nuban galde egin zidaten. Ezin geyagoraño lanpeturikan nengoan, neretzat gauz oso zaila zan, bereala egin bear zan... alde guztiyatatikan eragozpen-trabak sortzen ziran. Baiñan euskaldunen alde zerbait egin nezakeala gogoratu bezin laster, erantzun nuban: euskeratuko ez det, ba? Pozik alere! Beratikan abiyatuko naiz: ni baiñon euskaldun obeak bazter bakoitzean iru edo lau arkituko dituzu, ni baiñon euskal-zaleagorikan ordea, iñon ez. Gora gure euskera maitagarriya!».

Lan honetan Patrizio Antonio Orkaiztegiren atarikoak dugu, Tolosan sinaturik: «Euskeldunak, liburutxo hau artzazute, ta erderetakoak utziyaz. Elizondo'tar Prantzisko aita langille bikaniak asmorik onenaz euskel eder ta ederrean idatziya da. Lan au berari zorko diyogu beti». Orkaiztegi hau Santa Kruz apaiz gerrilari karlistaren laguntzaile eta laguna genuen, Orixe Elduaiengoaz tajutu zuen liburuan aipatu zuen Orkaiztegi bera hain zuzen ere.

Biguriak argitara eman zuen bigarren idazkia ez zen

itzulpen soila, sormenezko *Lore usaidun mamitsuak* bai-zik, Tolosako Gipuzko argitaldarian, 1922.ean. Elizondoko-ak hil berria zen Txomin Agirrerri opa zion lana. Eskeintzan lagunak zirela diosku, eta berari galdetu ziola argitaratzeak pena merezi zuenentz. Bestalde, sarreran diosku nondik norakoak: lan hauek Euskal Esnalekoek antolatu sariketan aurkeztuak dira, gero sariturik suertatu ez zirenak. Irakurketa errazak eta sinpleak dira, baina badira interesgarriak ere, esaterako, erleez luze ihardokitzen denean: «Erleak talde aundietan egoten ditun, eta gauza guztiak beti era onez egiten dizkiten. Talde bakoitzak bere ontzi edo bizitegi berezia din, eta oni eultza esaten zayon. Auetako bakoitzak iru erle mota ditun: erregiña, langilleak, eta alperrak. Eultz bakoitzean ez ditun erregin bat besterik izaten, alperrak gutxi, milen bat gutxi gora bera, gañerako guztiak, berrogei milletaraño, langilleak ditun».

Lan honen bigarren edizioztat jo dezakegu ia 1932.ean Iruñeko Kaputxinoen etxean agertu *Loretegi berria*, bada aurrekoaren testuek, orraztu eta berriro apainduak baziren ere, gorpuzten baitute liburu

hau, berri genuen zekidoraren batek-lan. Honetan, hitzaurrea Azkuek berak egina zuen. Ezin samurrago euskaltzainburuak: «Loretegi berri oni usain ederra dario. Izanak eztu izena gezurtatzen. Gai asko darabiltzki, yakingarri eta onurakorrak gehienak, eta bakoitza ederki azaldu ondoren, amaitzat, irakaspen egoki bat ateratzen du».



etorri ahalean

Patziku Perurena

## Gizaldi osoa alu

**A**ISE, GUSTORA SAMAR, eta kasik oharkabean pasa zaizkit zentzuak Zure Haragi Bereko elaberrian. Ez naiz hasiko kontakizuneko teknikak eta protagonisten zertzelada ezkutuak argitzen. Sekulan ez baitut balio izandu. Nobela honetan sumatu uste dudana gaia interesatzen zait: apaiz eta apaizkondo askoren artean, eta orohar heziera kristau extuak sortzen duen haragi magnifikatze, antsi eta ondorioz erreprezio eskizofrenikoa. Kontuak kontu, grina horixe baita, nere ustetan, nobela honen sortzaile eta moldatzaile. Honatx, esaten dudana frogatzen duten pasarte adierazgarri batzuk, atzekoz aurrera:

116 orrian: «*Begiak itxi nituen. Nire antzinako mania. Defentsarako agian. Gizadi osoa alu batekin, alu bakar batekin identifikatzearena. Amets sagaratua. Amodiozko pasioa. Sexuaren monofilia*». Horra liburuaren sintesi metaforikoa.

103 orrian, berriz: «*Amodioa izan liteke, kredoa, herria, semea, zirrara. Alabaina nirekin bat etorriko zara, Karen, sexua gertatzen zaigula lur irmoari eusteko kakorik bortitzena. Zoritxarrez ordea, gizon emakumeok ez dugu lortu gure bithotza eta burua sexu bilakatzerik. Ez dugu erdietsi arima sexu egiterik. Gorpuztitsuaren jokoa izugarri izan da beti, eta nik bezain ongi dakizu baldintzak, erreferentziak eta sekuentziak ezartzen dizkilogunean aztoratu egiten dela, sute gorri ur basoa jaurtikitzen zaionean bezela. Hori da lortu ez duguna, bata bestearen barnean amorruez, desesperoaren piraten artzuez, bereiztu gaituzten espazio zital horien abordaje-larrua eta ohorea uztea*».

Halatsu 20-21 orrietan: «*Belartzan eseri zinen. Tenisak eta zure betiko galtzerdi zuriak kendu zenituen lehenik. Gero, den dena, aurretik erabakia daukanaren keinuarekin: sanferminetako elastikoa, sujetado-*

*rea. Luze eman zenuen uretan sartuta. Putzuan aurrera eta atzera batzutan. Geldi besteñ zure bularren eta zokogune ezkutuen itzal islada zeru urdinari begira. Ltnburkortasunaren erronka. Ez nuen adorerik izan zuk bezala egiteko. Irritsetan nengoan arren. Oraindik ez dakit zergatik, Agian biluztasun eder osoaren aberria zuri bakarrik zegokizula pentsatzen nuelako. Agian nor beraren maitasun historia behin bakarrik gertatzen dela sinetsi nahi dugulako. Agian zure biluztasuna niretzat bakarrik plazer infinito bilakatu nahi nuelako. Ez dakit*». Bukatzeko, mesedez, begira ezazu *linburkor(tasun)* hitza Azkueren hiztegian.

Bestela, egileak bere larrutik uzten duena sumatuz aise leitzen da liburu. Baditu pasarte liriko eta filosofiko sinesgarri polit askoak. Aukeratu duen idazkera eliptikoak ere asko arintzen du irakurketa; baina egia esan, hizkera ofizialgia, prentsakoegia, ote duen iruditu zait, literatur soro ederrera zabalduz asko askorik umotu ga-bea.

Bidenabar esateko, Joxe Azurmendik erakutsi du ederki *Bekatuaren Itzala* elabarriaren hitzaurrean, eta halakoa izan grina, berriz atzera *Ostiela* batean, nik hemen adierazi nahi nuen gaitz zaharra. Bistan da gaitz berbera salatzen zuela *Gizona abere hutsa da* liburuak ere. Eta ni ez nauzu apaizak baino apaizago diren apaiz klasikoaren kontrario zitaldu horietakoa. Ez ditut batere gogoko, beren modernia erakutsi ordez beren extutaxun ergela areago salatzen duten apaiz berdduler horiek ere. Beste zerbaitetaz ari naiz hemen. Euskal pentsalaririk hobeskonetzat joak edukiarren, zeinen urruti gelditzen diren alegia, gizaseme apaiztu eskolastiko hutsak, harako arima haragitan odoldu duen librepentsadore haren gogo bihurri eta esteptiko hartatik, ez nuen besterik esan nahi.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Bidelagunak

**i**RAGARRI BEZALA, SADAR ALDEAN LUZAPENA JOKATU BEHAR DA, DESkonturik egonen den ezin jakin, honez gero, aski ebakia dugu inoiz hartuko den erabakia. Bilkura argigarria izan da, izan ere, egungo egonkortasun kafkiarrari aurre egiteko, balizko formula agertu zaigu. Konbergentea + Etaiokea. Errealitateak bidelagunak egin ditu. Inoiz besteren bat hurbilduko zaie. Ausardiarik falta ote? Berdinketa dugu emaitzarik txarra.

# Maitena Ezkutari Plazaola Turismo Partzuergoko kudeatzailea

## «Plazaolako bide berdeak jende gehiago ekarriko du»

**Maitena Ezkutari Plazaola Turismo Partzuergoko kudeatzaileak Plazaola eta bide berdeak hitzaldia eman zuen Irurtzongo VII. Ingurugiro Jardunaldietan. Ezkutariaren ustez Plazaolako bidea egokitzea onuragarria izanen da zeharkatzen dituen herrientzat. Dena den, haren iduriko, turismoa bestelako proiektuekin uztartu behar da bideragarria izateko.**

### soslaia

Maitena Ezkutari etxarriarrak Turismoa ikasi zuen Iruñean, eta Lekunberriko Turismo Bulegoan hasi zen lanean duela bost urte. Plazaola Turismo Partzuergoko kudeatzaile lanean duela hiru urte hasi zen eta, batzuetan lanez gainezka ibili arren, oso gustura dago.

ezin zaizkio mugak jarri, eskualdeko beste aukerak aberasgarriak dira eta bide horri jarraitu behar zaio.

■ **Dena den, Plazaolaren inguruan izan daitekeen turismoak ez ote du fede handiegia sortu?**

Argi izan behar dugu turismoa eskualdeko beste aktibitate ekonomiko bat besterik ez dela. Besteak baino askoz zailagoa da sarreretan zehaztea. Hori dela eta, eskualdean beste gauza batzuk egon behar dute eta bultzatu behar dira. Industria, turismoa eta nekazaritza uztartu behar ditugu. Argi dagoena da inguru honetan ezin daitekeela turismotik bakarrik bizi. Plazaolak mugimendu gehiago ekarriko dio eta horrek hala edo nola dirua utziko du hemen. Horretarako azpiegitura egokia antolatu behar da, ordea. Beste toki askotan deus gabe gelditu direnean turismoari ekin diote, horrek konponduko dizkielakoan arazo guztiak, eta hori ere ez da kontua.

■ **Europako Batasunak dirulaguntza asko ematen du turismo proiektuak bideratzeko. Hori dela eta Nafarroan proiektu asko sustatu dira eta hurrengo erronka kalitate hobetzea dela dio Gobernuak. Zuen eskaintzak horri jarraituko dio?**

Gure produktua bukatu gabea dago eta azpiegitura eta kalitatea batera eramaten saiatzen gara. Plazaola hasi zen lanean Pirinio eta Bertizgo Partzuergoekin eta Cederna-Garalurrekin. Proiektu batzuk ditugu elkarrekin. Datu base bat dugu, erreserba gunea ere badugu, eta hirugarren proiektua da kalitate sistema bat ezartzea. Horrek esan nahi du ditugun zerbitzu guztietan kontrol bat izanen dela. Hori guztia beharrezkoa da kalitatezko turismoaren aldeko apustu handia egiten ari delako Nafarroan eta lehiakorra. Mendialdeko produktua hobeki zehaztu behar da, kalitatea kontrolatu eta kategoriaz ezberdinetan saldu behar da. Landa turismoaren komertzializazioa zaila da, ez delako masifikaziorik nahi eta kalitatea eskaini nahi delako. Beraz, beste salmenta bideak bideratu behar dira.

→ Irene Arrizurieta

**D**UELA URTE BATZUK ASMOA BESTERIK ez zena errealtate bilakatzen ari da, eta Plazaolako trenbidearen garai bateko soinua eta keak lekua utziko diete bide berdeei. Beranduenez urte bukaeran irekiko dute Lekunberri Plazaolako trenbidearen geltokia, eta heldu den urtean bide berdea egiten hasiko dira.

■ **Zer dira bide berdeak?**

Bide berdeak trenaren bide zaharrak utzitako bide berreskuratutakoak dira. Lurrak errailik gabe egon behar du, tunelek moldatuta eta kudeaketak kontrolatuta. Espainian 1993an hasi ziren bide berdeak egiten. Gutxi batzuk behar bezala bukatuak daude, baina gehienak proiektu besterik ez dira. Espainia guztian 7.000 kilometro dira bide berde potentzialak. Plazaolako trenbidea bide berde bihurtzeko proiektu teknikoa 1993an egin zen eta Madrilen aurkeztu. Geroztik arazoa lurrak pribatuak izateak sortu du. Plazaola trena martxan jarri baino lehen lurrak herri bakoitzarenak ziren. Trena abiatu zenean Gipuzkoako Konpainia Meatsiderurgikoak hartu zituen, behin trena bukatzen zenean herriei berriz bueltatzeko. 1953an ustiaketa bukatu zen eta 1958an desegin zen. Hemengo udalek ez zuten egin behar bezalako paperik eta Madrildik eramane zuten dena. Hango Gobernuak enkantera atera zuen trenbidea eta bide gehiena bakar batek erosi zuen. Denborarekin puskaka saltzen joan zen. Plazaolako ibilbidearen proiektua proposatu zenean Nafarroako Gobernuak hasi zen 1995ean desjabetze prozesuarekin partikularrekin banaka aritzea luzea litzatekeelako. Gaur egun Gobernuak lanean hasteko baimena noiz eman zain gaude.

■ **Plazaolako proiektuak nolako eragina du pasatuko den bideetatik?**

Proiektua duen noduan Lekunberriko Gipuzkoarako



mugaraino joanen da eta bifasetan egingen da. Lekunberriko Uitziko tunelarekin izanen da lehendabiziko fasea, eta bigarrena Uitzitik mugaraino doana. Gure asmoa, dena den, denborarekin Iruñeraino luzatzea da eta hasierako bideak lotzea, Iruñetik Donostiarainokoa eginez. Lekunberriko Iruñeraino trenbidea nahiko desegina dago autobideak direla eta. Denborarekin ikusi beharko da nola moldatzen den bide hori. Proiektuak hiru zati

ditu: ibilbidearen moldatzea, paisaia eta tunelak egokitzea, eta ondoan bide alternatiboak egitea. Paisaia apenas aldatuko den, eta trenbideak beste itxura bat hartuko du.

■ **Plazaola trenak aberastasuna ekarri zuen pasatzen zen herrietara. Zuen proiektuak lortuko du hori?**

Bai, noski. Hori da gure asmoa. Uste izatekoa da proiektu horrek jendea ekarraziko duela, baina bidea iragaiten den herrietan eta



Partzuergoak 25 milioi pezetako aurrekontua du (1.000.000 libera). Trenbidea egokitzeak, berriz, sos gehiago beharko du. Plazaolako bidea moldatzeko lanak Madrilek ordainduko ditu; lehendabiziko fasea zein bigarrena 150 milioi pezeta kostako dira (6 milioi libera).



Beste proiektu eta asmo asko ditu Partzuergoak. Dena den, oraingoz behintzat, eskualdeko beste herri batzuek dituzten aukerak aztertzen dihardu. Besteak beste, Astizko leizeak eta Beteluko burdinola zaharra.

aldamenekoetan zerbitzu osagarriak eta baliabide gehiago jarri behar dira. Potentzialki oso onak diren gauza asko ditugu inguruan baina jendea erakartzeko ez dugu oso adierazgarria den zerbitzu; Plazaolako bide berdea izan daiteke. Horretaz aparte, ezin duzu elementu bakar batera mugatu, dibersifikazioa behar da. Ekonomia guztietan bezala hemen ere aukera ezberdinak eskaini behar dira masifikazio arriskua ez izateko. Turismoari

## BEKARIO!

ZALDI ERDA



## Nafar Kronika

Pello Argiñarena

### Haizeland

Nahiz eta antolatzaileek gonbidapen berezirik ez igorri, bertan azaldu eta gora-behera, ezker-eskuin, jira eta buelta ibili zen, bere ezin eramana agertu nahian edo.

Aspaldiko lagunekin egonaldia nahi baino laburragoak izan ziren bera zela medio. Jaten eta edaten oztopatu zigun etenik gabe. Inguruko ardo goxoen zaporea baino, harrotutako hautsarena dastatu behar izan genuen.

Baten batentzat, zeruan bueltak zebilen helikopteroak zuen erru osoa. Valdorbako haize-erroten eragina izan ote zitekeen ere, aipatu zuen beste norbaitek.

Baina kia, Nafarroako politikagintzaren isobarak euren eskuetan dituztenak izan omen ziren egoera tamalgari horren ardura-dun nagusiak. Noingo aireportuko meteorologi behatokiko teknikariek hurakan bat izan zela baieztatu dute. Marcotegui hurakana hain zuzen ere.

Dirudienez berriz azaldu omen daiteke haizeputz hori ikastola ttipiak ezarrita dauden hainbat herritan.

Euskarak ezin du agintari batzuen hego haize boladen menpe egon, hauen hitzak haizeak eramaten baititu. Hizkuntzaren aldeko ekimen eta proiektuak haizeberritu beharra dago.

Hurrengo urtean zirkuitua ICONAko hidrohegazkin batekin ureztatzea komeniko litzateke. Auzolanen baino, lan da lan haizelan ibili ginen Tafallan igandean. Tafalla euskaraz eta ingelesez berdin idazten da: Haizeland.

1998an Zangozan ospatuko da Nafarroa Oinez. Antolatzaileei lelo baten proposamena badaezpada: Euskara lau haizetara!

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- Alzoain: Artsaia Musik Club-ean festa afrikarra izanen da gaur, 23:30etan. Club mestizo eta DJ's taldeak eta dantza afrikarrak eta perkusioa entzuteko aukera dago.
- Zizur Nagusia: Josetxo Goiak eta Ensembled kontzertua eskainiko dute gaur, 22:00etan Kultur Etxean.
- Lizarran: Sarasate Orkestrak kontzertua emanen du gaur, 21:00etan Donibane elizan.
- Iruñea: Sarasate Kontserbatorio-ko auditoriumean bandoneon gaua ospatuko da, gaur, 20:00etan. Fabian Carbone bandoneonistak eta Tango Quattro taldeak tango musika kontzertua joko dute.

### ERAKUSKETAK

- Iruñea: San Frantzisko plazan mikologi erakusketa antolatu du etzi, igandea. Gorosti talde ekologistak. Erakusketak 10:00etatik 15:00ra arte egonen da zabalik.
- Tafalla: Antonio Hernandez Palaciosen marrazkiak eta komikiak ikusteko aukera dago azaroaren 2ra arte Kultur Patronatoan.
- Iruñea: Azul galerian Joxe Ulibarrena eskultorearen margoak eta eskulturak ikusteko aukera dago datorren azaroaren 2ra arte. Asteartetik larunbatera 11:00 14:00etara eta 18:00 21:00etara dago zabalik, igande eta jaiegunean, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

### ANTZERKIA

- Iruñea: Pasadas las cuatro taldeak Baby boom en el paraiso antzezlan taularatu du bihar eta etzi, 20:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.
- Tafalla: Zirko Ttipia taldeak Hay txandria! lana antzez-

tuko du datorren asteazkenean, hilak 29, 18:00etan Kultur Etxean.

### ZINEA

- Tafalla: Cinema Españolen retrato de una dama pelikula eskainiko da datorren ostegunean, urriak 30, 20:00etan eta 10:30etan.

### HITZALDIAK

- Iruñea: Carlos García eskalataleak Nomadak hitzaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Nafarroako Kirol Elkarteak Jarautan duen egoitzan. Solasaldiarekin

batera diapositiba emanaldia izanen da.

- Iruñea: Heldu den ostegunean, urriak 30, Zaldiko Maldiko elkarteak Nafarroa eta euskara. Mendialdea eta Erribera hitzaldia eskainiko du Erlantz Urtasun ikasleak. Hitzaldia 20:00etan izanen da.

- Iruñea: Euskaldunak eta erdaldunak Nafarroako euskararen historian hitzaldia emanen du Xabier Erize irakasleak eta Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936) azterketaren egileak, datorren asteartean, hilak 28. Solasaldia Erraldoien Txokoan

izanen da hitzaldia, 20:00etan.

### IBILALDIAK:

- Elortz: Ikea taldeak txirindula ibilaldia antolatu du Elortzeko bailarara etzi. Parte hartu nahi duenak 17-43-58 telefonora dei dezake. Irteera Iruñeko Basotxo parketik egingen da bitxandatan: lehena 9:00etan aterako da eta bigarrena 10:00etan.
- Iruñea: Nafarroako Kirol Elkarteak Linza-Ozara zeharkaldia antolatu du etziko. Informazioa eta izen ematea 224324 telefonoan.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



"Luis I, Luis II, Luis III, Luis IV, Luis V, Luis VI, Luis VII, Luis VIII, Luis IX, Luis X (Egokorra deitua), Luis XI, Luis XII, Luis XIII, Luis XIV, Luis XV, Luis XVI, Luis XVII, Luis XVIII eta akabo. Zein jende klase da hau, 20ra arte ere zenbatzen ez dakiena?" (J. Prevet)

Egunak 24 ordu dituelakotz



XX erlojuak